



3. alea
2010eko iraila

CARLOS RUIZ GONZALEZ

“Euskarak gorbata
gehiago behar ditu”



1.500 entitate baino gehiago ziur daude

**10
urte**

Balioa eta berrikuntza
Valor e innovación
Prestige et innovation

ziurtagiriaren elkartea

baieuskarari.org



Euskaraz
kirola gehiago
gozatzen da

Cuando se atiende
en euskara se
crea un clima de
confianza

Euskaraz
lan egiteak
motibazioa
pizten du

L'utilisation de
la langue
basque
améliore les
résultats du
commerce





artez

euskara zerbitzua

Gure konpromisoa

euskara hobekuntza *kalitatea*

berrikuntza bikaintasuna berdintasuna

ingurumena *ekologia* pertsonak

kultura jendarte **hizkuntza**

lan-taldea lana *garapena*





Rober Gutiérrez
Zuzendaria

Ziurtagiriak hamar urte

Hamar urte bete ditu Bai Euskarari Ziurtagiriak helburu irmo batekin: arlo sozio-ekonomikoaren euskalduntzean eragitea. Euskarak lanerako balio duela ohartarazteaz gain, onurak ere ekar zitzakeela argudiatu genuen orduko hartan, hala nola: balio erantsia, entitateen lehiakortasuna areagotzea, eskariari profesionaltasunez erantzutea, gertutasuna eta konfiantza transmititzea, barrura begirako motibazioa, atxikimendua eta pertsonak asebetetzea, erantzukizun soziala, irudia hobetzea, bezeroen aurrean sinesgarritasuna... Azken batean euskara apostu estrategiko eta berritzailea da edozein eratako entitaterentzat.

Hamar urte horietan argi frogatu ditugu onura horiek. Baina Bai Euskarari Ziurtagiriaren sorreran azpimarratu genuen gainera, zein beharrezkoak diren lankidetzak, koordinazioa eta sintonia egokia euskarak etorkizun oparoa izatea nahi badugu. Arlo honetan lan egiten dugun eragileok, irizpide argiek gidatuta, indarrak batu eta biderkatu behar ditugu, norabide berean.

Argitaratzailea:

Ziurtagiriaren Elkarte
Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel. 943 592148
www.baieuskarari.org

Zuzendaria:

Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:

Ziurtagiriaren Elkarte
eta Kultur Atelier

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Joxpi Irastortza

Diseinua eta maketazioa:

BIT&MINA

Argazkiak:

Ziurtagiriaren Elkarte
Kultur Atelier
Kutxa

Inprimatzailea:

Juaristi

Banaketa:

Ziurtagiriaren Elkarte

Lege gordailua:

SS-497-2010

Aldizkaria diruz lagundu duten entitateak:

Itzarri S.L.

TURISMORAKO **HERRI** **BIZIAK** ETA **IRAUN-** **KORRAK** ERAIKIZ

Aldabe Turismo Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak turismo kulturala, ingurumena eta gastronomia lantzen ditu, herri biziak eraikiz, bisitariak erakarriz eta garapen iraunkorraren baloreak transmitituz. Hamar urte baino gehiago daramatza **Aldabek** herri nahiz auzoetako baliabide turistikoak kudeaketan; hamar urte baino gehiago hasieran haietan sortu, landu eta garatu zituzten baloreei eta asmoei tinko eutsiz eta egungo merkatuan aurrera eginez.

Aldabek kudeatzen dituen proiektu integralen barne, hainbat turismo baliabideren sorreran eta garapenean gidari-rolak hartu ditu, interpretazio-zentroen, museoen, turismo-bulegoen eta abarren gestioan aditu bilakatuz.

Bisita kulturalak, gastronomikoak eta ingurumenekoak Goierri (Gipuzkoa):

Idiazabal

- Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa
- Gaztagintza: Ondramuño baserria

Segura

- Turismo bulegoaren ardura
- Erdi Aroko Interpretazio Zentroa: Ardixarra Etxea
- Andra Mari Jasokundearen Eliza
- Segurako kasko historikoa
- Karkaba

Zerain

- Turismo bulegoaren ardura
- Burdinaren Mendia: Azpitta adieraztegia, kiskaltze labeak eta galeria
- Larraondoko zerrategi hidraulikoa
- Zeraingo Herri Museoa
- 1711ko kartzela
- Erlezaintza
- Gaztagintza
- Harizti Erdi aterpetxea



Informazio gehiagorako bisitatu www.aldabe.com

JOXPI IRASTORTZA

EMUN-eko kidea; lan-munduaren eta euskararen gainean tesia egin berri du

Jarreratik portaerara jauzi egiteko gakoa

Komunikazioa da laneko lanabesik garrantzitsuenak, zalantzarik gabe. Batzuetan bakarrik aritzen gara, esate baterako, sosegu bila joaten garenean komunera, atsedean garaian zigarrotxo bat erretzera... gure buruarekin aritzen gara hizketan; beste batzuetan, gure lanerako beharrezko ditugun tramankulu eta tresnekin aritzen gara hartu-emanen eta gehienetan, gure lankide, hornitzaile, bezero eta beste zenbait eragilarekin komunikatzen gara. Etengabea da komunikazioa, bistan da ez garela mutu egoten. Eta jakina, azken urte luzeotako lan harremanetarako gure enpresa eta erakundeetan erabili ohi izan den eta den hizkuntza nagusi-nagusia badakigu zein den edo zoritxarrez guretzako, zein ez den erabiltzen edo oso gutxi erabiltzen den, baita langile euskaldunon artean ere.

Esan beharrik ez dago, lana pertsonen bizitzako parte oso garrantzitsua dela, lan egiteko adinean gaudenok egunaren herena horretan pasatzen baitugu. Bestalde, euskarak espazioak irabazi behar ditu, euskarak bizitzako alor guztietan erabiltzeko guneak behar ditu eta horregatik jarri ziren lantegietan ere abian orain urte batzuk euskara planak. Aurrerapauso

handiak eman dira, baina, bidea uste baino luzeagoa dela konturatzen gara, harri-koskor ugarirekin egingo dugu topo, ibilbidea ez da leun-leuna izango, hainbat bidezidor hartu beharko dugu, pertsonekin egingo dugu topo, uste, iritzi eta pentsamendu askotako pertsonekin, eta batez ere eurekin batera erraztu edo zaildu ahal izango dugu euskararen bidea.

Aldizkari honetako aurreko alean Jokin Larrañagak, Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko zuzendariak zioen bezala, hizkuntza bat biziberritzeko ezinbestekoak dira hizkuntzaren aldeko jarrera eta konpromisoa izatea. Zalantzarik ez. Baina, hala ere, hori ere ez da nahikoa izango euskararen erabilera areagotzeko. Portaera bat motibatze-ko jarrera ona izatea eta aurreikusten ditugun helburuak lortzeko intentzioa edo konpromiso pertsonala agertzea ezinbesteko aldagaia bada ere, jarreratik portaerara jauzi egiteko ez da nahikoa. Batzuetan intentzio eta konpromiso garbia azaldu eta helburuak lortzen ditugu, baina ez beti eta euskararen kasuan, esango nuke, helburu gehienak erdibidean geratzen direla, esaten dugunetik egiten dugunera izugarritzako aldea egon ohi dela, alegia.



Edozein dela gaia, objektua edo estimulua, zenbat eta gehiago jakin hari buruz, gure sentimendua, iritziak, kognizioa edo pentsamendua... ere areagotu egiten da objektu harekiko, eta objektu haren norabideko helburuak lortze aldera, ekintzak jarriko ditugu abian. Euskara gehiago erabiltzeko zenbait ekintza aurrera eramateko intentzio garbia azaltzen badut, intentzio hori portaera bilakatzea posible egiteko barne eta kanpo faktoreak kontrolatzen ahalegintzen banaiz eta, batez ere, helburuak lortu izana edo lortu ez izanaren inguruko kausak aztertzen baditut, gogoeta egiten badut, erabileraren zakua betetzen joango naiz.

Gizarte-psikologiako ikuspegi kognitibistari jarraiki, euskararen gaineko pentsamendua garatuz, euskararen aldeko emozio edo sentimendua ere areagotu egingo zaigu eta ondorioz, guk nahi dugun norabideko pausuak ematea ere samurragoa gertatuko zaigu; beraz, **PENTSATU**, **SENTITU** eta **EGIN** prozesua da nire ustez, jarreratik portaerara jauzi egiteko gakoa.



ELHUYAR
aholkularitza

**Parte-hartzea
eta talde-lana**
oinarri,
hobekuntza
helburu



... eta laster,
Bilbo Handian ere
Elhuyar Aholkularitza

Jarri gurekin harremanetan!

aholkularitza@elhuyar.com

www.elhuyaraholkularitza.net

Zertan egiten dugu lan?

- Euskara planak enpresa eta erakundeetan
- Esparruka landutako euskara planak udalerrietan: lan-mundua, merkataritza, gazteak...
- Hizkuntza normalizaziorako bestelako aholkularitza: laneko euskara moduluak, hizkuntza jarrerak lantzeko prozesuak, laguntza materialak...
- Herriarrekin parte hartzeko prozesuak: hirigintza, berdintasuna, gazteak...



Carlos RUIZ GONZALEZ

Kutxako Gizarte Alorraren eta Komunikazioaren zuzendaria

Donostian jaio zen 1957an. Gaztetan hasi zen lanean Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalean, artean elebarkarra zela. Berehala ekin zien euskara eskolei, 1978an, Oskarbi musika taldean lehen pausoak ematerako jada osatua baitzuen euskalduntze bidea. 90etan Gipuzkoako Ikastolen Federazioan Santo Tomas Lizeoaren ordezkari aritu zen. Euskararen Aholku Batzordeko kide da 2007az geroztik, musikazale eta kantuzale petoa, Oskarbi taldean darrai gaztetatik kantuaren hegaletan gustura. 1998an Kutxaren Miramongo Trebakuntza Eskolaren arduradun izendatu ondoren, 2002-2008 artean, Kutxaren Giza Baliabideen zuzendari jardun zuen; geroztik, Gizarte Alorraren eta Komunikazioaren zuzendaria da. Berea da “euskarak gorbata gehiago behar ditu” esaldia, esparru formalean ere aritu beharra aldarrikatzeko.

Azken aldian alde guztietan ikusten da Kutxaren logo berria. Zergatik aldaketa hori?

Aurrezki Kutxek sortze beretik dute egiteko bikoitza: gizartearen garapen ekonomikoari eta sozialari laguntzea. Historian zehar, ordea, bi egiteko horiek bereizteko joera erakutsi dute eta logo berriarekin erakutsi nahi izan dugu guretzat

uztaturik daudela. Gure egitasmoan ez da kabitzen Gizarte Ekintzarik gabeko finantza-erakundea.

Hain zuzen, badirudi egungo krisian Kutxaren eredu hori dagoela airean, eta pribatizazioa ere aipatu da. Badago arriskurik?

Bai, arriskua nabarmena da. Nire ustez, bost urte barru oso aurrezki kutxa gutxi

geldituko da Espainiako finantza-sisteman, eta oro har Gizarte Ekintzara bideratutako diruak asko murriztuko dira.

Eta Kutxaren kasuan?

Guk borondate argia daukagu orain arteko ereduari eusteko. Eta gure bezeroen leialtasunari esker oso indartsu gaude merkatuaren presioei eusteko, azken fro-

“Hizkuntza-kudeaketa enpresaren egunerokoan txertatu behar da”

gek erakutsi duten bezala. Beraz, nahi dugulako eta ahal dugulako, eutsiko diogu gure egiteko bikoitzari.

Datu argigarri bat emango dizut. Finantza krisiak eta kudeaketa zuhurak eraginda, Kutxaren mozkinak erdira jaitsi dira 2007tik 2009ra bitartean eta, hala ere, eutsi egin diogu Gizarte Ekintzaren aurrekontuari. Gainera, aurrera begira aldaketa sakonak ari gara egiten nire alorraren antolaketan, Gizarte Ekintza garai berrietara egokituta gure jarduera eraginkorragoa izan dadin.

Zein izan da aldaketa hori?

Atal asko aipa nitzake, baina bitara mugatuko naiz. Alde batetik egitura birmoldatu dugu, fundazioen bidea hobetsita, tresna moderno eta egokiak bihurtu direlako. Eta bestetik, gure lan ildoak egokitu ditugu XXI. mendeko gizarteak eskatzen duenera. Oinarrizko zerbitzu gehienak herri administrazioek eskaintzen dituztenez, guri dagokigu eskaintza horren eta ekimen pribatuak baztertzeko duenaren artean ibiltzea. Aurreratuko dizut Onkologiko berriarekin osasunaren zikloa burutu ondoren hurrengo zikloaren ardatza ingurumena eta jasagarritasuna izango direla.

Gizarte Alorraren barruan, euskara sustatzera bideratutako proiektuek lekuri ba al dute?

Kutxan gipuzkoar jendartearen, Kutxaren bezeroen eta bere baitako lankideen igurikapenei egoki erantzuten ahalegintzen gara, baita hizkuntza igurikapenei ere, eta norabide horretan, urte luzez elkarlanean dihardugu. Urrutirago joan gabe, Gipuzkoako eta Eukal Herriko Bertsozale Elkarteekin, Gipuzkoako eta Euskal

Herriko Ikastolen Elkarteekin, UZEI bezalako erakundeekin eta hainbat Euskara Elkarterekin. Azken urteetan gainera, apustu estrategikoetan murgildu gara; Ahotsak.com egitasmoa babestu, Sozio-linguistika Klusterreko bazkide egin eta Mintzola Fundazioaren patrono sortzaile izan, besteak beste.

Kutxaren Hizkuntza Politikaren ardura 1998az geroztik zure esku dago. Orduz geroztik zein izan dira zure erronkak?

Erronka nagusia izan da hizkuntza kudeaketa enpresaren eguneroko engranaje txertatzea eta bidean urrats ugari eman ditugu: 2000.eko hamarkadaren hasieran eskuratu zuen Kutxak Bai Euskarari Ziurtagiria, garai beretsuan jendaurreko lanpostuetarako langile elebidunen kontratazioa orokortu genuen eta, horri esker, gaur egun Gipuzkoan jendaurrean lanean diharduten lankideen gehiengo handia elebiduna da.

Hamarkada berean, beste herrialdeetan bulego ugari zabaltzeak errealitate berri batera eraman gintuen, eta hamarkadetan euskara eta gaztelera kudeatzen pilatutako esperientziak, hizkuntza gehiago kudeatzeko egokieran jarri gintuen. Izan ere, gurean jada sei hizkuntzekin egiten dugu lan egunerokoan: euskara, gaztelera, katalanera, galegoa, frantsesa eta ingelesa.

Baina euskara, Kutxaren jatorrizko lurraldeko hizkuntza berezkoa da eta gaztelerarekiko harremanean duen desoreka gainditzeko berariazko kudeaketa eskatzen du eta horri egoki erantzuteko ahaleginean dihardugu Kutxan. Horren adierazle asko dago: lanpostura euskaraz konektatzeko aukera, goizero intraneteko

albisteak euskaraz irakurtzeko aukera, laneko aplikazioa euskaraz baliatzea eta lanean euskaraz egiteko laguntza tresnak (hizkuntza ezagutza helbidetegi telefonikoan, hiztegiak, glosategiak edota itzulpen memoriak). Eta beste maila batean Hizkuntza Plana bera, hizkuntzen kudeaketarako lanpostu bat sortu izana, lankideen hizkuntza ezagutza jasotzeko autoebaluazio sistema, herri erakundeekin sinatutako elkarlan hitzarmenak eta Eusko Jaurlaritzak 2007an egindako ibilbideari aitortutako Ukan saria eta 2008an eskuratutako Bikain Ziurtagiria bera ere.

Jarritako helburuak bete al dira? Zergatik da zuen ustez garrantzitsua euskara organizazioan txertatzea?

Hizkuntza-gaiek, enpresako gainerako gaiekin batera kudeatu ezean, ibilbide laburra dute lanleku baten eguneroko martxan. Ahalegin berezia egin dugu hizkuntzen-kudeaketa gainerako adierazleen parera ekartzeko eta gainerako gaiekin batera molde estandarretan kudeatzeko. 2010eko Kudeaketa Planean jaso dira lehenengo aldiz hizkuntza-helburuak, alor bakoitzeko hobetze-helburuetan, eta honi esker, jarritako helburuei jarraipena egiten ari gatzazkie geroztik. Hizkuntza-kudeaketa enpresaren engranaje txertatu behar da gainerako aldagaien kudeaketarekin batera, ezin da aparteko gai bat izan.

Gizarte Alorraren zuzendaria izateaz gain, Komunikazioarena ere bazara. Kutxak gaztelan ez ezik, euskaraz ere komunikatzen du. Zergatik komunikatu euskaraz?

Arrazoi askorengatik. Hasteko, erantzukizunez jokatzeko dagokiolako bertako berezko hizkuntzarekiko, Kutxa bere



jatorrizko lurraldeari eta jendarteari zor zaion erakundea izaki. Kutxa gainera, finantza erakundea da eta Gipuzkoan euskaraz eta gazteleraz bezala, hedapenean lekuan lekuko hizkuntzan jardun denean, bere bezero eta lankideengandik onespina eta atxikimendua jaso izan ditu. Bezeroarekiko arreta zerbitzuaren kalitateari begira jarritz gero, eta zehazkiago hizkuntzari dagokionean, bezeroak hizkuntza aukeratzeko aukera duenean egongo gara kalitate parametroetan, izan ere, bezeroa bere hizkuntzan artatzeak, zuzeneko eragina du bezeroaren asebetetze mailan eta beraz baita negozioaren emaitzetan ere.

“Hizkuntza-kudeaketan lidergo posizio batean jardun nahi dugu, finantzen sektorean erreferente garbi bat markatzeko”

Euskara erabiltzeak eta euskararen marka hori berekin eramateak zein onura dakartzio bada Kutxari?

Hizkuntzen garrantzia erakusten digute urtero gizartean egiten ditugun merkatu ikerketen emaitzek. Esaterako, mailegu bat egiterakoan zerbitzu hizkuntza gazteleraz izanda interesa merkeago jarri arren, gipuzkoarren laurik batek interesa zerbait garestiago ordaintzeko prestutasuna azaltzen du euskaraz artatuko badute. Bada zerbait.

Kutxak gainera, bere izenean, bere markan bertan du euskara, K-rekin eta TX-rekin idazten baita, beraz alferrik da gure kasuan euskara ezkutatzen saiatzea. Hedapenean ere, marka bera mantendu dugu, eta antza ez da kalterako izan, hedapen prozesua arrakastaz burutzen ari baikara. Hizkuntzen gaian, aurreiritzi eta portaera desproporzionatu ugarirekin egin dugu topo urte hauetan guztietan, eta kudeaketa eraginkor batek portaera horiek identifikatu eta normaltasuna esperimentatzea eskatzen du, hortik praktika onak jaso eta zabaltzeko.

Aurrera begira zein dira erronka nagusiak hizkuntza-kudeaketari dagokionez?

Hizkuntza-kudeaketan lidergo posizio batean jardun nahi dugu, finantzen sektorean erreferente garbi bat markatzeko eta Kutxa taldeko erakundeetan, nahiz enpresa partaidetuetan, norabide berean eragiteko. Gipuzkoan gainera, erronka berezi baten aurrean gaude: lehenago irakaskuntzaren esparruan egin bezala, orain euskara lanaren esparruan txertatzea tokatzen da. Ikastetxe eta unibertsitatean elebidundutako belaunaldi berriak hasita daude lanean euskara ere erabiltzen.

Norabide horretan, Bikain ziurtagiriaren 2008ko ebaluazioan antzemandako hobetzeko neurriekin dihardugu orain,

hauek burutu orduko, urrezko ziurtagiria eskuratu ahal izateko. Era berean, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Bai Euskarari “Zerbitzua Euskaraz” Ziurtagiria, Nafarroa eta Lapurdiko bulegoetara hedatzera iritsi nahi genuke.

Hizkuntza-kudeaketari lotutako bi ziurtagirien jabe da Kutxa: Bai Euskarari Ziurtagiria eta Bikain ziurtagiria. Zertan zaizkizue baliagarri bata eta bestea?

Nik hizkuntza politikaren ardura hartu berrian abiatu zen Bai Euskarari Ziurtagiria eta tresna baliagarria izan zen guretzat Kutxan urrats berriak emateko, gizartearen bulkada zekarkigun aldetik.

Bikain ziurtagiriak izan zuen balio erantsi bat: EFQM kalitatearen metodologia-rekin zetorren eta, nola hori gurean oso ezaguna den, lagundu zigun hizkuntza kudeaketa normalizatzen, beste aldagaien parean jartzen. Eta ebaluazioaren emaitza ere ona izan zen: Kutxa da Bikain ziurtagiria eskuratu duen lehen finantza etxea.

Hori esanda, seguruenik Bikain ziurtagiria ez zen izango lehenago Bai Euskararena martxan jarri izan ez balitz. Bata bestearen sekuentzia logikoa da eta gainera erabat osagarriak direla ikusi dugu izaera eta metodologiari dagokionez, baita lurraldetasunari dagokionez ere. Ona litzateke bi ziurtagiriak bakarrera ekarri eta herri erakundeetan eta gizarte mugimenduen artean elkarlana bideratzea. Bi ziurtagiriekin darraigun enpresek eskertuko dugu.

“Ona litzateke bi ziurtagiriak bakarrera ekarri eta herri erakundeetan eta gizarte mugimenduen artean elkarlana bideratzea”



GOZATU



Zure aisia gozatzeko tresnak dira liburuak, diskoak, DVDak...

Horiek guztiak eskura jartzen dizkizu **elkar txartelak**, deskontu, promozio berezi eta beste hainbat abantailekin.

gozatu aisia
gozatu txartela

elkar



EKINEZ EGINA



Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa ekitaldia Donostiako Kursaal Jauregian.

10 urte bete ditu Bai Euskarari Ziurtagiriak. 10 urte lan munduaren euskalduntzean eragiten. Orain dela 10 urte Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoaren diseinuaren bukaeran murgilduta zeuden ehunka entitatek fase erabakigarriari ekin zioten: euskararen normalizaziorako helburuak, ildoak eta ekintzak finkatuta, proposamen horietatik borondatez zeintzuk hartuko zituzten erabakitzea. Lan horren lehen emaitzak 2000ko ekainaren 13an jaso ziren Donostiako Teknologia Elkartegian egin zen Bai Euskarari Ziurtagiriaren lehendabiziko banaketa ekitaldian. Bertan sektore guztietako 231 entitatek euskara ikasi eta gehiago erabiltzeko neurriak hartu eta Ziurtagiria eskuratu zuten.

10 urte igaro badira ere, Pilar Kaltzadaren orduko Kontseiluaren komunikazio arduradunak ondo gogoan du garaia. Ziurtagiriaren hasiera-hasiera ezagutu zuen Kaltzadak, Bai Euskarari Ziurtagiriaren lehen urratsak, hau da, proiektua definitzea eta, bereziki, proiektua bere egingo zuen gizartearen mobilizazioa: “Garai hartatik nabarmenduko nuke gizarte erakundeetan ez ezik, gizartean bertan sumatu genuen indarra. Halako loraldi baten modukoa izan zen. Gaur egun oso zailak diren ekimenak abian jarri ziren, eta ordura arte zangotraba ziren batzuk gainditu egin ziren”.

Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendariak ere oso gogoan du Bai Euskarari egitasmoaren hasiera hura. Bere esanetan, egitasmoa martxan jartzeko hipotesi jakin batetik abiatu ziren: “Gizartean zegoen euskaltzaleasuna askoz ere handiagoa zen, neurri normalizatzaile zehatzetan ikusten zena baino; hala ere, euskaltzaleasuna bideratzeko aukera egokiak falta ziren; erakargarriak, garantia sozial handikoak, inplikatzeko bidea eskaintzen zutenak eta erakunde bakoitzaren errealitatera egokitzeko modukoak”. Horri guztiari erantzuteko jarri zen abian Bai Euskarari.

Euskara: edonon, edonoiz eta edozertarako

Hasiera hartan oso mezu sinplea igorri zuten: ‘euskararen erabilera normalduan (eguneroko zeregin guztietan) ez zaude bakarrik’, eta Kaltzadaren aburuz, beharbada, horrexegatik lortu zuen hain oihartzun handia: “Nik ezagutu nuen neurriraino, jendeak oso ongi hartu zuen ekimena, eta bere sostengua eman zuen. Ziurtagiriaren eta Bai Euskarari mugimenduaren arteko lotura zuzena ikusten zen, eta bigarrenaren sozializazio-inda-

PILAR KALTZADA

“Garai hartatik nabarmenduko nuke gizarte erakundeetan ez ezik, gizartearen bertan sumatu genuen indarra. Halako loraldi baten modukoa izan zen”

ROBER GUTIÉRREZ

“Lankidetzaz, koordinazioa eta sintonia egokia oso beharrezkoak dira euskarak etorkizun oparoa izatea nahi badugu”



Bai Euskarari Ziurtagiriaren lehen banaketa ekitaldia Miramonen, Donostian.

rraren baitan txertatu zen proiektua. Horrek hasierako bultzada eman zion, gero urtez urte gorpuzten joan dena”.

Gutiérrezen hitzetan, horrezaz guztiaz gain, euskarak lanerako balio zuela eta onurak ere ekar zitzakeela argudiatu zen orduko hartan: “Baina ezereen gainetik, indarrak biltzea eta elkarrekin lan egitea izan zen orduan gure erronka, eta gaur ere horrexek izan behar du. Bide luzea egin dugu eta jakina denez, joko-arau eta planifikazio egokia lagun, adorea eta baliabide egokiak ezinbestekoak ditugu aurrera egin eta helmugara sasoi betean iristeko”. Izan ere, Kaltzadak dioen moduan, oraindik bidean asko dago egiteko eta beldur da gainera, atzera egiten ez ote garen ari. Bere ustez, lanaren mundua eta gizarte-sentiberatzea batera jorratu behar diren eragin-esparruak dira eta bigarrenetan hutsune handiak sumatzen ditu: “Ziurtagiriak bide bat eskaintzen du, baina horren legitimazioa eskarian datza neurri handian, eta irudipena dut eskaintzan baino ez dela eragiten ari, orokorrean”. Kaltzadaren aburuz, eus-

kara balio konpetitibo gisa ikusi behar dute arlo sozio-ekonomikoan diharduten erakundeek eta horretarako, merkatuak euskara baloratu egin behar du, aintzat hartu eta faktore bereizgarri bihurtu: “Oso urruti gaude oraindik egoera horretatik”.

Kontseilutik Ziurtagiriaren Elkartera

Bai Euskarari Ziurtagiria Kontseiluaren baitan sortu bazen ere, erakunde honek berak, hainbat urteren buruan, proiektua indartzeko, gidatzeko eta gizartearen aurrean erreferentziala izateko, egitura zabal eta sendoago baten beharra nabarmendu zuen. Hala, 2007ko ekainaren 7an Ziurtagiriaren Elkarteak sortu zen eta Rober Gutiérrezek hartu zuen bere zuzendari kargua: “Urtebeteren buruan Ziurtagiriaren Elkaratearen ikuspegia eta helburu nagusiak zehaztu genituen: 1) euskararen normalizazioaren aldeko neurrien kreditazioan erreferente izatea, 2) arlo sozio-ekonomikoaren aurrean eragile izatea, eta 3) bezeroei kalitate handiko

zerbitzua eskaintzea, tresna eta baliabideen ezagutza emanez.”

Kaltzadari pauso logikoa iruditzen zaio Elkarteak sortu izana, kudeaketa profesionalaren bidean aurrera egiteko modua eskaini duena: “Ziurtagiriak berezko zeregin batzuk ditu, erakunde independente batetik hobeto burutu daitezkeenak. Legitimazioaren aldetik ere, pauso inportantea eta ausarta izan da”.

Aurrera begira berriz, indarrak batzeko beharra ikusten du Gutiérrezek: “Orain dela 10 urte, Teknologia Elkarategian izandako ekitaldian, azpimarratu genuen zein beharrezkoak diren lankidetzaz, koordinazioa eta sintonia egokia euskarak etorkizun oparoa izatea nahi badugu eta 10 urte geroago ere norabide berean jardutea dagokigu”.



Rober Gutiérrez, Ziurtagiriaren Elkaratearen zuzendaria.

HIZNET: 10 URTE SOZIOLOGIAKAZ

Hiznet Hizkuntza Plangintza ikastaroaren ibilbide luzean 400dik gora kidek parte hartu dute; euskararen normalizazioaren alde lanean ari direnak, gehienak. 2010/2011 ikasturtea izango da ikastaroaren hamargarren edizioa; azaroan hasi, eta datorren urteko uztailan amaituko da. Euskal Herriko Unibertsitateko Berezko Titulua da berau eta Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren babesa du. Soziolinguistika Klusterra eta Udako Euskal Unibertsitatea ere ikastaroaren laguntzaile dira.

Soziolinguistikaren oinarritzko ezagutza eskaintzeaz gain, **Hiznet Hizkuntza Plangintza** graduondokoak ondoko helburu nagusi hauek ditu: euskararen normalizazioaren plangintzarako metodologia eta lanabesak irakastea, euskararen egoeraren berri zehatza ematea, eta Euskal Herriko gizarteak hizkuntzekiko eskaintzen dituen baldintzak ezagutaraztea.

Ikastaroak metodologia malgua dabil; e-learning formazio eredua eta aurrez aurreko lau saio uztartzen ditu. Ikastaroa abian jarri zenetik arlo ezberdinetako irakasleek parte hartu dute bertan; Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek eta ikerlariek, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzako teknikariek, euskara teknikariek eta hainbat enpresa eta euskalgintzako profesionalek, besteak beste.

Graduondokoa euskalgintzako euskaltzaleei, euskara teknikariei, egunen batean zeregin horietan aritzeko asmoa dutenei, herri administrazioan eta hezkuntza sisteman hizkuntza normalizazioaren ardura dutenei... zuzenduta dago. Ikastaroan izena emateko epea zabalik dago eta ikastaroaren nondik-norako guztiak ondoko webgunean topa daitezke:

<http://hiznet.asmoz.org>

IZADI 21 ENPRESAK ISO 14.001 ZIURTAGIRIA ESKURATU DU

Izadi 21 (Inguru 21, S.L.) enpresak 2007 urteaz geroztik garapen iraunkorarekin eta, oro har, ingurumenarekin zerikusia duten arloetan aholkularitza eskaintzen du. Enpresaren funtzionamenduan ingurumen jardunbide egokiak bultzatzeko asmoz, 2009ko urrian enpresak UNE-EN-ISO 14001: 2004 arauaren arabera Ingurumen Kudeaketa Sistema ezartzeko plangintza eta metodologia prestatu eta aipatu kudeaketa sistema ezartzearekin zion eta 2010eko maiatzaren 7an ISO 14.001 ziurtagiria lortu zuen.

L'ASSOCIATION B.L.E AUSSI OBTIENT LE LABEL BAI EUSKARARI

L'association B.L.E aussi obtient le Label Bai Euskarari, dans le but de promouvoir l'euskara dans l'association.

B.L.E est née en 1993, à l'initiative d'un groupe de paysans d'Iparralde dans l'objectif de développer une agriculture biologique, autonome et économe, en Pays Basque, et s'opposer aussi au modèle productiviste prôné par le développement agricole conventionnel. La détermination de ce groupe aboutit à ce qu'est notre association aujourd'hui: elle regroupe 300 adhérent-es, en très grande majorité paysannes et paysans, dont un tiers environ certifiés en bio.

Elle propose, par l'animation menée par ses 5 salariés, un ensemble de travaux de formations, d'expérimentations, de diffusion technique et de savoir faire, d'organisation d'événements et de rencontres, concourant à développer une agriculture biologique et durable à taille humaine, ancrée et adaptée à nos terroirs. L'esprit qui prévaut est de favoriser le travail en groupe et l'ouverture vers l'extérieur, vers le monde agricole conventionnel, vers les citoyens, vers les consommateurs, sur des sujets concrets et quotidiens. L'association participe activement à la vie de plusieurs réseaux locaux ou régionaux oeuvrant pour ce renouveau du développement rural: la fédération Arrapitz, ici en Iparralde, la fédération Bio d'Aquitaine, et nos partenaires ENEEK et Biolur en Euskadi et Navarre.

Pour plus d'information consulter: bio-aquitaine.com/asunak

ANDAMIOS DECORADOS CON PERSONAJES MITOLÓGICOS

La empresa Renovaciones Técnicas De FRIAS, s.l., dedicada a la rehabilitación, reparación y mantenimiento de edificios ha obtenido el Certificado Bai Euskarari.

La empresa se dedica a la rehabilitación completa de edificios, incluyendo reformas estructurales, impermeabilización y aislamiento de fachadas y cubiertas, renovación de viviendas, ascensores, escaleras y locales, etc; a la reparación, puntual, de elementos en peor estado; o al mantenimiento periódico de los diferentes elementos del edificio, para prolongar la vida de los materiales y evitar males mayores, como goteras o caída de elementos de fachadas y cubiertas.

Pero, una de las iniciativas más llamativas y originales de la empresa De FRIAS es la decoración de andamios con personajes mitológicos. Con este proyecto la empresa pretende contribuir a la difusión de algunos personajes de la mitología vasca. Para el desarrollo del proyecto De FRIAS ha contado con la colaboración de Izenaduba Basoa, Elkar Fundazioa y Esteban Antxustegi.

La mitología vasca es una invención humana que, partiendo de creencias y ri-

tos prehistóricos, ha evolucionado y se ha desarrollado con la incorporación de elementos foráneos hasta sufrir importantes cambios con la expansión de la religión cristiana.

“Cuanto más conozcamos nuestros mitos, mejor entenderemos lo que nos rodea”, es la filosofía de la empresa De FRIAS. Así que este proyecto es una invitación, a través de la imaginación y de la mano de distintos personajes, para acercarnos al mundo de la mitología.



Jarduna
administrazio zerbitzuak

**Euskara denon kontua da,
kontuak ere euskaraz**



Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen dizugu:

KONTABILITATEA • ZERGAK • NOMINAK • KOBRANTZAK • AUTONOMOAK

Martin Ugalde Kultur Parkea ANDOAIN
Tel.: 943-30 40 30 • administrazioa@jarduna.net

www.jarduna.net

LAZARRAGA SARIEN LEHEN EDIZIOA MARTXAN DA

Arabako arlo sozio-ekonomikoan euskararen alde lan egin duten entitateak edota pertsonak saritzea da xedea. Sari-banaketa ekitaldia irailaren 23an egingo da.

Lan munduarekin eta euskararekin lotutako **LAZARRAGA SARIAK** antolatu dituzte Ziurtagiriaren Elkarteak eta Arabako Foru Aldundiak. **LAZARRAGA SARIEN** helburu nagusia Arabako arlo sozio-ekonomikoan euskararen alde lan egin duten entitate edota pertsonak saritzea eta haien ahalegina errekonozitzea da. Hala, **LAZARRAGA SARIEN** bidez, Arabako lau entitate eta pertsona bat sarituko dira euren lan ingurunean euskara txertatzeko aurrera eraman-dako ekimenengatik.

Lazarraga aitzindaria izan zen euskaraz idatzi zuelako; haren izena hartu duten **LAZARRAGA SARIAK** ere aitzindariak dira eta sarituko diren enpresak ere aitzindariak izango dira; euskararen normalizaziorako bidea urratzen aitzindariak.

2010eko sariketan norbanako bakarra sarituko da eta euskarari ekarpen bereziren bat egin izanagatik sarituko da norbanako hori. Entitateei dagozkien sariak berriz, lau esparru ezberdini lotuta emango dira:

- Hizkuntza-paisaian euskara modu egokian gehien erabiltzeagatik nabarmendu den entitatea.
- Barne-harremanetan euskara modu egokian gehien erabiltzeagatik nabarmendu den entitatea.
- Euskara sustatzeko ekintza berezi eta eraginkorren bat garatu duen entitatea.
- Kanpo harremanetan euskara modu egokian gehien erabiltzeagatik nabarmendu den entitatea.

Sari-banaketa ekitaldia irailaren 23an izango da Bibat museoa. Sarituko diren entitate edo enpresen kasuan, saria nori eman erabaki aurretik izendapenak egin dira eta sari bakoitzeko hiru hautagai aukeratu dira. Irabazlearen izena sari-banaketa egunean bertan emango da.

Hautagaiak aurkezteko prozesua irekia izan da. Epea uztailaren 23an amaitu zen. Irabazleak aukeratzea aditu talde batek osatutako epaimahaiaren esku dago orain.

45 ENTITATEK LORTU DUTE BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA MALE- RREKAN, LEHEN BA- NAKETA EKITALDIAN

2009ko urte amaieran jarri zen abian Malerrekan **Euskaraz bai dinamika**, eskualdean euskararen normalizazioa modu partehartzailean bizkortzeko. Ordutik hona, Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzera ematen eta eskualdeko zenbait establezimendu eta elkarte bisitatzen aritu dira. Lan eskerga horren ondorio dira Donezteben banatu diren 45 Ziurtagiriak. Izan ere, Malerreka 45 entitatek eskuratu dute guztira Bai Euskarari Ziurtagiria, lehen banaketa ekitaldian, eta horietatik 44 berriak dira. Ziurtagiria eskuratu duten 45 entitateetatik 10ek “Zerbitzua euskaraz” maila eskuratu dute, eta gainerako 35ek “Euskararen bidean” maila.



BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN 2010EKO PUBLIZITATE KANPAINA MARTXAN DA

lazko filosofiari eutsiz, **“balioa eta berrikuntza”** lelopean, abian da dagoeneko Bai Euskarari Ziurtagiriaren 2010eko publizitate kanpaina. Azken publizitate kanpainetan Ziurtagiria zeukaten entitateak izan ziren protagonista. Aurtengoan berriz, bezeroei eman nahi izan zaie hitza. Hala, kontsumitzera, negozioetara edota aisialdiaz gozatzera doazenean euskara zergatik baloratzen duten adierazten da.



Ziurtagiriaren Elkartearen eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren berri emateaz gain, Ziurtagiria duzuen entitateongandik jaso ditugun berriak biltzen eta lantzen ari gara aldizkari honen bidez. Beraz, aurrera begira ere zuen entitatearen inguruko berriren bat baldin baduzue, edota euskara eta lan-munduekin zerikusia duen informazioaren bat eman nahi baduzue, jarri gurekin harremanetan 902 430026 telefono bidez edota komunikazioa@baieuskarari.org posta-elektroniko bidez.

FACEBOOK ORRIALDEA ETA TWITTERRA MARTXAN




Bai Euskarari profilak ia 5.000 lagun lortu ditu Facebook-en eta sistemak ez digu uzten lagun gehiago onartzen. Eskara mordoia izaten jarraitzen dugu eta horiei guztiei erantzuteko Facebook orrialdea sortu dugu. 1.346 zaletu ditu dagoeneko eta eskatu nahiko genieke profilean lagun direnei nahiz lagun-eskara egin duten guztiei orrialdearen zaletu egin daitezen, laster profila erabiltzeari utziko baitiogu.

Facebook erabiltzaileak eta, batez ere, Bai Euskarari-ren profileko lagunak orrialdearen zale egitera bultzatzeko ekimen berritzailea jarri du martxan Ziurtagiriaren Elkarteak. Lehiaketa prestatu zuen, baina bertan parte-hartzeko beharrezkoa zen Bai Euskarari-ren orrialdearen zaletu egitea. Behin hori eginda eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren 2010eko spota ikusita galdera erraz bati erantzun behar zitzaion. Erantzuna eman zuten guztien artean zozketa egin zen eta irabazle Idoia Aretxabaleta atera zen. Ziurtagiria duen nekazal-etxe batean as-teburu-pasa izango du sari.

Facebook orrialdearekin batera Twitterra ere erabiltzen hasi gara, beraz gurekin Twitter bidez kontaktuan egon nahi duenak **‘baieuskarari’**-ren jarraitzaile egin besterik ez du.

WEBGUNE BERRIA ETA BLOGA BIDEAN

Hurrengo alea zuen eskuetan izaten duzueneko baieuskarari.org webgunea berrituta izango dugu eta bloga martxan. Helburua da sarea, euskara eta lan-mundua uztartzea, erreminta dinamiko, parte-hartzaile eta irekiak erabiliz. Inolako proposamenik balu inork, gustura jasoko genituzte.



EMUN

LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

www.emun.com
www.lantalan.com

ARRASATE - ANDOAIN
- BERRIOZAR - DERIO

Tel. 943 711 847
emun@emun.com